

Xabier Oleaga Arando

KAZETARIA

## Ondoeza

A

ste honetarako artikulua enkargatu zidan Mikelek martxoaren 28an, egoera politikoaz aritzeko, eta ondoeza sortzen zait bat-batean. Alde batetik martxoaren 8aren aurretik eta ondorengo egoeren artean bi dira bakarrik garbituta geratzen diren inkognitak, herri honen hegoalderi dagokionean. Bat, orain jada Zapatero hauteskudeen irabazle dela. Bi, ez duela oraingoz gurekiko gaztazka bere lehentasunen agendan jarri nahi.

Gainerako guztiak bere horretan jarraitzen du. Zapaterok irabazten badu eta, ondoren, nahi badu. Otzare bakar horretan zeuden gure esperantzaren sagar guztiak jarrita. Ez iezadazue esan patetikoa ez denik: norbere esperantzak bestearen ekimenen zain.

Salbuespena egitekotan, bakarra: erabakitze-ko eskubidearen inguruan Ibarretxek egindako bide-orria. Baina hori ere, orain arte behintzat, arazoz beterik. Espero zenengandiko arbuioaz aparte, bere alderdiaren bihotza, bi zatitan banatuta. Ezker Abertzaleak, aitortzen dizkio meritua, baina ez mesfidantzak gainditzeko haina. ELAk, bete-betea esan dio ezetz. Hala ere hori da une honetan mahai gainean dagoen ekimen bakarra. Bere inguruan indarrak metatzeko gai izango ote den, horretan dago koska.

Eta hori ez bada, zer geratzen zaigu? Arrasatekoaren pasarte hasieran dramatiko orain nahaslea? Horren antzekoak dira espero ditza-kegun emozio bakarrak? Gehiago usteldu behar du oraindik egoerak zerbait ganorazkoa gorpuztu dadin?



DANI BLANCO

Eta ondoezaz ari naizenez, nahiz eta errealtatearen beste mutur batera joan, ez dut ezikusiarena egingo apirilaren 20ko ARGIA Kultura sailburu eta Jaurlaritzaren eledunari egindako elkarrizketaren aurrean. *Por alusiones* esan ohi den bezala, *Egunkaria* auzian eskuak –eta etorkizuna– lotuta dituen horietakoa bainaiz.

Gaizki hasitakoa ezin ondo amaitu, edo, beste modu batez esateko, orduko hautsetik oraingo lokatza. Afera honen muinean dagoen zorigaitzeko iritzi artikulua bere garaian argitaratu gabe uzteko argitasuna ez izateagatik, orain erredakzio desberdinetatik paseoa dabil nor eta sailburu anderea bera pertsonalki, gaur deklarazioak bihar zuzenketak, Jaurlaritza Baztarririkarekin ala Baztarrika Jaurlaritzarekin ote dagoen, galimatias jada zorionez gainbeheratua, esplikatu ezinik, berak sortutako labirintotik atera ezinean.

Izan ere, agintean dagoena erraz sartzen da subsidiatutako erredakzioetan, gaur egun denak horrelakoak izanik. “Pozten nau elkarrizketa honek, pozten nau galdera hori egin izanak”, arazorik gabe korapilatzen ditu erredakziook bere interesetara, zer esan, noiz, non eta zertarako erabaki duenean, bereziki kazetaritzari datzekion –omen– kontzientzia kritikoa eta heldutasun profesionala urriak diren garai hauetan. Ardura instituzionalari berari eta kazetariaren ofizioari diedan errespetuagatik, ikuskizun tristea iruditzen zaidala ezin barruan gorde. Gaitzerdi, dena honetan geratu eta eguna iritsita kalte handiagoa ez badakarkigu. ■

TXANDAN

Edu Zelaieta



Aspaldi iragarri zuen Nietzschek jainkoa hila zela, ordura arteko kontzientziari lur eman zekion eskatuz. Ume-zurtz utzi gintuen deskubrimenduak. Sinesgabe eta bizitza bakarreko.

Mundu honetara jaulki gintuen XX. mendeak ederki erakutsi zigun ez dagoela ideologiek guztiz fidatzerik: boterea iritsi duten ideologia guztien izenean krimen lazgarriak egin dira; hastapenetako xedeak, ustez, ezin bidezkoagoak eta humanoagoak baldin baziren ere.

Egia da, beraz: erori dira mitoak/erori dira heroiak/erori dira aberrik sakratuenak. Ongi finkatuta-

## Tontor eroriak

ko zuhaitzaren irudiak ez digu dagoeneko balio, ez bada, esateko sustraiak bezain korapilatsuak garelako; argi-lunetan biziko garelako lur hartu bitarte. Hala ere, euskarri finkorik ez izanagatik, ez dugu ahul edo hauskor agertu nahi. Are gutxiago miserable: zintzo eta on bizi gara gure eta besteen argitan.

Nolanahi den, tontor erorien ondoko panorama inoiz baino zailago eta interesgarriago dakusat. Berriz diot: zaila bezain interesgarri. Horregatik, kontent, irriz edota, zer dakit nik, zorionak sei hilabeteko utzi banau, ez etorri pesimismoz edo zinismoz kargatutako armekin. Haurdun egonda ere, bai baitut munduaren berri. ■